

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN MARTZIAL 48



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1889.
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboaren espedientean)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, hiru goi oin eta txapitulak dituen estalkipeko oin bat dituena. Eraberritzeko eta jasodura altxatzeko lanak egin zaizkio 2004-2008 urteetan. Harlanduzko fatxada eta aluminiozko begiratokia erdialdeko baoan.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 4. eta 5. goi oinak (babesak behe oinean eta lehenengo hiru goi oinetan soilik du eragina); begiratokia.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:

- * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
- * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.